



1. ERANSKINA: TOLOSAKO KIROL ELKARTE ETA TALDEEN EGITURAZKO GARAPENERAKO DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO 2017KO DEIALDIA.

1. OINARRI ARAUTZAILEAK

Irabazi asmorik gabeko kirol-talde eta klubeei zuzendutako diru-laguntzen oinarri espezifikoak, haien egiturak indartzeko eta garatzeko eta beren jarduera gauzatu dezaten, behin betiko onarpenaren zain, 2017ko apirilaren 25ean Udal batzarraren erabakiz onartutakoak dira.

2.- PERTSONA EDO ENTITATE ONURADUNAK

Aipatutako oinarrietan arautzen diren diru-laguntzen onuradunak izango dira Tolosan egoitza soziala duten irabazi asmorik gabeko kirol arloko klubak eta elkarteak, baldin eta konprometituta badaude gizonen eta emakumeen tratu- eta aukera-berdintasuna bultzatzen duten kiroletako eta jarduera fisikoko balio kohezitzaileekin.

3.- ESKAERAK ETA AURKEZTEKO EPEAK

2017.urtean, diru laguntza horien eskaera egiteko eta harrekin joan behar duen dokumentazioa aurkezteko lehen eguna, deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo eguna izango da.

Ezinbesteko da eskaera (inpreso formala) eta dokumentazio osagarriak, Tolosako Udalaren erregistroan aurkeztea, nolanahi ere, beranduena, deialdeiaurreko **irailaren baterako**.

4. DOKUMENTAZIOA

Eskaeraren inprimakiarekin batera (erantsita jarraian) aurkeztu beharreko dokumentuak dira, oro har, oinarri espezifikoaren 7. puntuan (1.eranskinan) xedatutakoak:

- a) Eusko Jaurlaritzako Kirol Elkarten eta Erakundearen Erregistroan izen-emate ziurtagiria.
- b) IFKren fotokopia.
- c) Zergei dagozkien betebeharretan (Ogasuna) eta Gizarte Segurantzaren eguneratuta egotearen ziurtagiriak.
- d) Urte horretako jarduerak (puntualak, denboraldikoak edo urte osoak) babestuko dituen erantzukizun aseguruaren ordainduta dagoela ziurtatzeko agiria.
- e) Dagokion bankuaren edo aurrezki-kutxaren agiria, egiaztatuko duena kirol elkarteak emandako kontu korrontea klub eskatzailearena dela (eskaera berrietarako).
- f) Emandako datuak egiazkoak direla ziurtatzeko zinpeko aitorpena.
- g) Lehiaketa ibilbideko inpreso-laburpena (udal ereduak) erantsitakoa

2. Eginiko **jardueraren memoria**, gutxienez hauexek bilduko dituena:

- a) Elkartearen urteko jarduerak (errendimendu ibilbidea) helburu eta emaitzen deskribapenarekin, elkarteak antolatzen dituen jarduerak puntualak barne.
- b) Lehiaren dauden kirolarien zerrenda; haien adina, **sexua**, eta bizilekua adierazi beharko dira. Dagokion federazioak kirolari horien zerrenda eman eta hori ere gehitu beharko da.
- d) Teknikarien zenbakidun zerrenda, federazioaren indarrean dagoen lizentzia dutenena; haien titulazioa eta **sexua**. Klubera atxikitako entrenatzaile gisa agertzen den federazioko lizentzia eta titularen fotokopia ere eska daitezke.
- e) Lehiaren dauden ekipoen kategoria eta kopurua (emakumezkoak, gizonezkoak) eta bakoitzaren lehiaketa-maila (lurraldekoa, erkidegokoa, estatala edo goragokoa).
- f) Eskola-kiroleko lizentzia kopurua, kategoria eta **sexua** adieraziz.
- g) Eskola-kiroleko tokiko egitarauaren garapenerako klubak egindako lan-hitzarmenak ikastetxeekin.
- h) Eskola-kiroleko jardueretako, elkartearen begiraleen zerrenda, adina eta **sexua**.
- i) Klubak antolatzen dituen jarduerak bakoitzaren memori laburu bat non azalduko diren partehartze datuak sexuaren arabera segregatuak, eta ikusle kopuruaren estimazioa.

3. Jardueraren **memoria ekonomikoa**. Ondokoak izan beharko ditu, elkarte batzarrean agertutako edo agertuko diren kontuen

urteko balantzea, non xehatuko diren:

- a) Kontuen urteko Balantzea (SARRERA eta GASTUEN laburpena, jarduera bereziak barne)
- b) Jarduera osoko GASTUEN zerrenda.
- d) Fakturen aurkibidea, zein gasturenak diren esanez.
- e) Guztira emandako diru-laguntza justifikatzeko faktura (*).
- f) Jarduera osoaren diru-sarreraren zerrenda.
- g) Jasotako diru-sarreraren zerrenda eta finantziazio-iturriena.
- h) Jasotako diru-sarreraren ziurtagiriak.
- i) Entitateak denboraldirako dituen diru-laguntzen aitortpena. Gainera, beste erakunde batzuei eskatutako laguntzen berri eman beharko da, nahiz eta diru-laguntza eskatzeko unean ez jakin emango dituzten ala ez, deialdi horretan.
- h) Previsión del presupuesto para la nueva temporada (ingresos-gastos).

4. (*) *Aurkeztutako ziurtagiriekin denboraldikoak izango dira eta ondoko baldintzak bete beharko dituzte:*

- i) *Klubaren edo elkartearen identifikazio argia.*
- j) *Kontratistaren edo hornitzailearen identifikazioa.*
- k) *Fakturaren data.*
- l) *Hornidura/ zerbitzua beharrezko egin duen jarduera.*
- m) *Horniduraren edo zerbitzuaren deskribapena.*

Eginiko eskaeretan edo haiekin batera aurkeztutako eranskinetan akatsen bat badago, interesatuei eskatuko zaie 10 eguneko epean aurkitutako akatsak konpon ditzatela.

Dokumentazio hori, epe barruan, aurkeztu ezean, diru-laguntza jasotzeko aukera galduko du eskatzaileak. Era berean, datuak ezkutatu gero, edo datu faltsuak emanez gero, diru-laguntzak jasotzeko aukera galduko du, eta hainbat kasutan, baita ondorengo diru-laguntzak jasotzekoa ere.

Eskaeran agertzen diren datuak ez badira behar bezala egiaztatzen, ez dituzte aintzat hartuko eskaera baloratzekoan.

4.- LAGUNTZAREN GEHIENENKO ZENBATEKOA

Diru-laguntzaren gehienekoa ez da izango klubeko aurrekontuaren %30 baino handiagagoa.

5.-DIRU-LAGUNTZAREN ORDAINKETA

Emandako diru-laguntza kirol denboraldia amaitzen denean ordainduko da, onuradunak justifikazioko dokumentazioa aurkeztu ondoren deialdiko urteko irailaren 1-erako.

6.- FINANZIAZIOA ETA AURREKONTUA

Baimendutako gastua, 120.100€-koa da, aurrekontuko 481.01.34100 kontu sailaren kontura.

7. JAKINARAZTEA

2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio-prozedura komunari buruzkoak, 45.1.b) artikuluan ezarritakoaren arabera, deialdiaren ebazpen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Argitalpen horrek banakako jakinarazpena ordeztuko du; eta jakinarazpena egintzat joko da eta lege ondorioak izango ditu ebazpena argitaratu eta biharamunetik.

8.- BALDINTZAK EZ BETETZEA

Ondoren aipatzen diren egoeretako bat gertatuz gero, eskatzaileak jasotako diru-kopurua itzuli beharko du eta laguntza ordaindu den unetik sortutako interesa ere ordaindu beharko du:

- a) Deialdi honetan edo kontzesio-akordioak ezarri dituzten epeak betetzen ez baditu.
- b) Diru-laguntza ematerakoan arrazoi gisa hartu zen helburua betetzen ez badu.
- c) Oinarri arautzaileak (1.eranskina) ezartzen diren betebeharretako bat betetzen ez badu.



9.- DIRU LAGUNTZEN ARAUDI ERREGULATZAILEA

Deialdi hau agiri honetako oinarriek zuzenduko dute, eta hemen aurreikusten ez dena, azaroaren 17ko 38/2003 Diru-Laguntzen Lege Orokorrak.

10.ESKAERA EREDUA

KIROLETAKO DIRU LAGUNTZETARAKO ESKAERA ORRIA
IMPRESO DE SOLICITUD DE SUBVENCION DE DEPORTES
(Kirol elkarteak eta klubak)

ERAKUNDE-ELKARTEA
ORGANISMO-CLUB

EGOITZA OFIZIALA
DOMICILIO SOCIAL

BESTE EGOITZA
OTRO DOMICILIO

POSTA KODE
CODIGO POSTAL

TELEFONOA
TELEFONO

IFZ
CIF

E-MAILgo HELBIDE
DIRECCION E-MAIL

LEHENDAKARIA
PRESIDENTE/A

EUSKO JAURLARITZAKO KIROL ELKA. ETA ERAKU. ERREG. DAGOKION INSK. ZENBAKIA.
Nº DE INSCRIPCION EN EL REGISTRO DE ASOCIACIONES DEPORTIVAS DEL GOBIERNO VASCO

BANKUETXEA

K/K ZENBAKI EN

LIZENTZI FEDERATUAK

Gizon		Emakume		Bestelako generoa/Bestelako identitateak (*)
-------	-------	---------	-------	--

(*) Bere burua ez gizontzat, ez emakumetzat definitzen duten pertsonak, hala nola: transexualak, transgeneroak, intersexualak eta bestelako gorputz-errealitateak.

(*) Aquellas personas que no se definen como mujeres ni como hombres, tales como transexuales, transgénero, intersexuales y otras realidades corporales.

BAZKIDEAK

Gizon		Emakume		Bestelako generoa/Bestelako identitateak (*)
-------	-------	---------	-------	--



ZUZENDARITZA-Directiva

Gizon	Emakume	Bestelako generoa/Bestelako identitateak (*)
-------------	---------------	--

AURREKONTUA-PRESUPUESTO

SARRERAK

GASTUAK

DATA

FECHA

ZIGILUA-SINADURA

SELLO-FIRMA